



Pekinen Hiri debekatura bisita derrigorrezkoa izan zen, baita Tian'anmen plaza eta Txinatar harresia ere.

Lasarteoriar bidaiaria

Ilus Amundarain lasarteoriarra bidaiari tre-bea dugu. Iaz Hego Amerikara joan zen eta aurtan Moskutik Shangairako bidea egin du eta ibilbidearen heren handia Transmongolia trenean egin du. /4

Udazkena gai argazki rallyan

Atzo hasi eta astelehen arratsaldera arte dute Tomas Fernandez argazki rallyan parte hartzen duten argazkilariek bere bilduma egiteko. Aurtan gaia Udazkena Lasarte-Oria da eta ongi pentsatu beharko dute parte hartzaileek hiru argazki aurkezteko. Edizio honetan A mailan 5 haur aurkeztu dira eta helduen mailan 20 pertsona baino gehiago. Ondorioz, Rosa Illarramendi Kultur etxeko teknikaria kontent agertu da helduen kopurua igo baita. •



Larunbatean
ordua aldatu
behar da,
goizeko
03:00etan
02:00ak
izango dira

HIRIGINTZA ■ 3

Aholkulari taldea
elkartuko da
hirigintza gaiak
jorratzeko.

KIROLA ■ 6

Ostadar nagusitu
zen larunbatean
jokatu zen
bigarren
erregionaleko
derbian

KIROLA ■ 6

Lasarte-Oria
taldeak irabazi
zion Ostadarri
jubeniletan
jokatutako
derbian

Zorion-agurrak



Ibai, Aimar eta Izadi

Zorionak zuen lehengusinen partetik. Olatz eta Ane. Ondo-ondo pasa zuen egunean eta muxu handi bat!!!



Iris

Zorionak zure 7. urte-betetzean. Ama, aita eta etxeakoak. Ondo pasa.



Haizea

Zorionak famili guztia-
ren paratetik zure
bederatzigarren urte-
betetzean.



Mari Karmen, Andrea eta Fermin

Zorionak eta muxu asko hirurontzat famili guztia-
ren partetik.



Nora

Zorionak printzesa 7.
urtebetzean! Segi hola-
ko polittaaaaa.



Asier eta Andoni

Zorionak bikote. Bost musu handi.



Haizea

Animo tipazo! Zuk egin
dezakezu! Familia, lagu-
na eta Ane Miren.

Azoka txikia

Eskaizta inmobiliarioak

• Pisu bat alokatzen da Lasarte-
Oriako erdigunean. Abala eskatzen
da. Tel.: 686 674 552.

Salgai lokal bat Andatza plazan, 2.
zk. Etxebizitza egiteko modukoa.
60 metro karratu ditu eta argitsua
da, argi naturala du.
Tel.: 943 363722, Cecilia Arbizu.

Salerosketak

Koltxoi ortopediko gogorra salgai.
1,20 x 1,90. la berria. Salneurria 90
euro. Tel.: 686 93 27 14

Lan-eskaiztak

Irakasle bat behar da DBH 2. maila-
lako gazte bati laguntzeko.
Tel.: 943 361304/ 943 371425

Oharretarako:

943 366858 • txintxarri@takun.com • Geltoki kalea 4 •
www.txintxarri.info

Emakume bat behar da etxe-
ko lanak egiteko, goizez.
Tel.: 666 409196.

Lan-eskariak

Andre gaztea eskaizten da etxe-
ko lanak edo garbiketarako egiteko, aste-
lehen, asteazken eta ostiralean
goizeko 09:00etatik 12:00etara.
Tel.: 661182178

Neska bat eskaizten da lan egite-
ko. Etxeko lanak egiteko, zaharrak
edo haurrak zaintzeko, orduka,
interna edo externa moduan.
Tel.: 689 200 659.

Bestelakoak

Opari bi txakurkume, 2 hilabete-
koak. Tel.: 943 363306.

Jaiotzak

Sara Zubizarreta Usabiaga,
urriaren 17an.
Aner Luis Amonarraz,
urriaren 16an.
Ander Sanz Garcia,
urriaren 13an.
Eneko Sanchez Iraola,
urriaren 12an.



Heriotzak

Vicenta Gibellos Ramos, urriaren
20an 71 urte zituela.
Joxe Tejeria Treku, urriaren 17an
92 urte zituela.

Guardiak

Ostrala, 24

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Larunbata, 25

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Igandea, 26

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Astelehena, 27

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Astearte, 28

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Asteazkena, 29

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Osteguna, 30

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DIA ... 943 370000
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldegia ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Bakezko epaitegia ... 943371629
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
Zentro Zibikoa ... 943363958
KIUB ... 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621
Obrak eta
zerbitzuak ... 943 376180



Gazte Informazioarako Bulegoa

Manuel Lekuona kulturetxea • Tel.: 943 376181

Haur hezitzaileen beharra

Lan egin nahi baduzu HAURRES-
KOLAK aukera ematen dizu lana
zure zain dago! Betekizunak: Haur
Hezkuntzako maisu-maistra, Haur
Hezkuntzako Goi mailako teknika-
ria edo Haurtzaindegiko teknikari
espezialista izatea. Hezkuntzako 2.
hizkuntz-eskakizuna edukitzea.
Informa zaituzte Haurreskolak par-
tzuergoan 943 821753 telefono
zenbakian edo pertsonalkudeake-
ta@haurreskolak.net helbide elek-
tronikoan.

Kale Hezitzaileak

Kalexkak kale hezitzaileak behar
ditu Donostialdean eta Urnietan
lanaldi osorako (goizetan kudeake-

ta eta arratsaldean esku-hartzea).
Baldintzak: Gizarte Hezkuntzan
diplomaduna edo gaitua izatea.
Bidali curriculum vitae-a urriaren
31a baino lehen kalexkaelkar-
tea@kalexka.com helbide elektro-
nikora. Kontakturako telefonoak:
943 399361 / 647929201

Diseinu eta Moda lehiaketa

"FELICIDAD DULCE" Diseinu eta
Moda Goi mailako Eskolak
"SALDRÁS EN PORTADA"
VI. lehiaketa antolatzen du. Lehiaketa-
ren helburua diseinatzaile gazteen
sormena bultzatzea da. Lanak aur-
kezteko azken eguna azaroaren
28a izango da. Informazio gehiago
93 237 27 40 telefono zenbakian

edo mportero@fdmoda.com hel-
bide elektronikoan.

Donostiako 31. Nazioarteko Maratona

2008ko azaroaren 30an ospatuko
den Donostiako Nazioarteko
Maratoian parte hartzeko izena
emateko epea irekita dago. Izen-
emateak 40 euro balioko du
2008ko urriaren 31ra arte eta aza-
roaren lehen aurrera berriz 60
euro. Maratoia-
ren bitartez izena emateko epea aza-
roaren 23ra arte luzatuko da.
Informazio gehiago 00 34 943-57
55 16 telefono zenbakian edo
info@maratondonostia.com helbi-
de elektronikoan.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte. Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria. 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@takun.com • Publizitatea: publizitatea@takun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@takun.com; ttakun@takun.com.
Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Hirigintza gaiak jorratzeko aholkulari taldea elkartuko da

■ Alderdi politikoetako ordezkariekin batera besteak beste, auzoetako elkarteetakoak, merkatarienak eta ekologistak daude ■ Batzordeak ez dauka erabakiak hartzeko ahalmenik, soilik proposamenak egitekoa.

TXINTXARRI

Urriaren 20an eratu zen Plan-gintza Urbanistikorako Aholku Batzordea. Bertan Udaleko alderdi politikoetako ordezkariak herriko zenbait elkartetako partaideekin bilduko dira herriko hirigintza gaiak jorratu eta Udaleko Gobernuko ordezkariari proposamenak egin edo aholkuak emateko. Besteak beste, Oztabide eta Zabaleta Auzolan auzoetako elkarteetako ordezkariak, Osiña Ekologistak Martxan taldekoak, Aterpea merkatarien elkarteetakoak eta Agenda 21 Forokoak parte hartuko dute batzorde aholku emaitza emateko.

Udaleko ordezkariak adierazi dutenez, bere helburua "eragile ezberdinen arteko koordinazioa da, batez ere, Udalaren bihar-etzizko hirigintzaren antolamenduari buruzko erabakien orientabidean parte hartzea".

Soilik aholkulari

Udalak "herritarren parte-hartzerako organo" hau eratu du hirigintza gaiak bertan eztabaidatu daitezkeen. Dena den, batzorde honek hartutako erabakiak edo egindako proposamenak, txostenak, azterketak, alternatibak edo informak ez dira lotesleak izango, hau da, Udal Gobernuko ordezkariak libre izango dira nahi duten erabakia hartzeko.

Aholku Batzordearen egizkizuna izango da, herriko hirigintza antolamenduari buruz kanpotik Udalari planteatzen zaizkion ekimenak, iradokizunak, alternatiba edo proposamenak aztertzea. Aldi berean Udalaren hiri plangintzaren azterlan, programa eta jardun-ildoen berri zuzena izango dute Batzordeko ordezkariak.

Hirigintza

Hirigintzaren antolamenduari inguruko plangintza eta txostenak egin beharko ditu batzordeak, Udalak edo Aholku-batzordeak berak hala eskatzen baldin badute.

Lurzoruaren Lege berriak esaten du beren planeamendu urbanistikoa behin betikoz onartzeko kompetentzia duten



Ekainaren 14an jokatuko dira Squash txapelketako final nagusia eta kontsolazioko finala.

udalerrietan derrigorrezko figura dela Aholku-Batzorde hau. Lasarte-Oriaren kasuan beraz derrigorrez osatu beharrekoa zen aholkularitza batzorde hau.

Bere funtzioa, "udalerriko agente ezberdinek parte-hartzea hirigintzaren antolamenduari inguruko erabakien aurreko orientabidean".

Beraz, Udal ordezkariak laguntzeko dago, baina aholku-batzordearen eztabaidak eta egindako txosten zein

azterketak ez dira lotesleak izango da Aholku-Batzordea, Udal Gobernuarentzat.

Urchueguia buru

Ana Urchueguia alkatea izango da Aholku-Batzordeko lehendakaria, Hirigintza batzordeburu Iñaki Mugica, lehendakariordea eta bokalak aldez, Ingurumen batzordeburu Ricardo Ortega, eta Udalbatza osatzen duten talde politiko bakoitzeko zinegotzi bat. Alderdietako ordezkariekin batera, Oztabi-

de, Zabaleta Auzolan, Osiña, Agenda 21 Foroa eta Aterpea elkarteetako ordezkariak osoko bilkurak egingo dituzte. Aholku Batzordeko lehendakariak edo batzordearen beraren gehiengo absolutuak dauka osoko bilkura eskatzeko eskubidea.

Aholkularitza Batzordeko partaide guztiek dute mintzatzeko eta bozkatzeko aukera, baina esan bezala bere erabakia ez da Udal Agintarienzat loteslea. •

DYA

35 urte bete ditu

Gipuzkoako sailak

DYA Gipuzkoako 35. urterenaren ospakizuna dela eta, elkarteak Ate Irekien Jarduerak antolatu ditu datorren urriaren 25erako, larunbata.

Hori dela eta Donostiako Sagües zabalgunean, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 18:00etara, Elkarteak bere lana burutzeko erabiltzen dituen ibilgailu eta bitartekoaren erakusketa egongo da.

Aurrekoaz gain rokodromo txiki bat jarriko da haur-sartenak mendi erreskatean erabiltzen diren teknika desberdinak praktikatu ditzaten edo proba egin dezaten zer sentitzen den pareta batean ohexkan zintzilik egotean edo tirolinaz botatzean.

Gazteenak bide segurtasuneko zirkuitu bat izango dute bertan ibiltzeko eta txikiak jolasean ibiltzeko puzkarriak.

Estand batean edonork, doan, bihotz-arnas susperketako, hau da, ahoz-ahokoa eta masaje kardiakoaren oinarriko printzipioak ikasi ahal izango ditu, denok bizirauteko jakin beharko genituzkeen maniobrak, hain zuzen ere. Aparteko beste estand batean berriaz, osasun txekoak laboratu egiteko aukera egongo da. Guztia doan.

Arratsaldeko 18:00etan, eta egunarekin amaitzeko, errepideko erreskate baten simulazioa egingo da.

ODOL EMAILEAK

Oria Beheko bilkura izango da Izaskunen

Urtero legez, Oria Beheko Odol Emaleen ordezkariak igandean bilduko da Izaskunen.

Eguna hasteko meza entzungo dute Izaskungo Ermitan. Oostean, 25, 40 eta 50 odol emari egin duten pertsonen domina, diploma eta garaikurreak banatuko zaizkie eta bilkura era ezin hobean bukatzeko bazkaria antolatu da Izaskun jatetxean.

Lasarte-Oriako sarituak honeko hauek izango dira: 25 odol emariarekin Juan M^a Aizpurua, Conchi Bengoetxea, Lourdes Calonge, Pablo Carretero, Julia De Pablos, Xabier Etxabe, Jon Batista Galarraga, Begoña Iriondo, Francisco Jimenez, Belen Lizarazu, M^a Soledad Martin eta Jose M^a Saraseta; Luisa Alvarez, Gloria Ochoa, Lourdes Zinkunegi eta Eva Parrieo dira 40 odol emari bete dituzten emakumeak eta 50 egin dituzten gizakak Juan Manuel Etxarri, Roberto Rebe, Jesus Garcia, Antonio Iparragirre eta Pedro M^a Lizaraga dira. •

Oporretan motxila hartu eta abenturara doazen jende ugari dago Lasarte-Orian. Bidaieri trebeak direla esan daiteke eta hauetako bat Ilu Amundarain dugu. Aurretik transiberiar trenbideak zeharkatu ditu, Moskutik Pekinera, hiru herrialde eta kultura desberdin ezagutu eta semea bisitatu du Shanghaien.

Baina Iluk dioen bezala ez da bakarrik joan, "taldean egin dut bidaia. Internet bidez ezagutu ginen, eta guztia gure kabuz egin genuen. Talde ona sortu genuen, laguntasun handikoa. Eta Irkutsken talde banandu zen, katalana eta 2 andaluziarrak Pekinera egin zuten eta guk bidea jarraitu genuen".

Honetaz gain, bidaia etapatan egin dutela ere azaldu digu. "Lehenengo etapa Mosku Ekaterinburgo izan zen. Trena handia zen, 30 bagoi edo. Ekaterinburgo hurrengo trenerako tiketa hartu, eguna pasa eta gauean berriro trenera", dio Iluk, "hurrengo geldialdia Novosibirsk egin genuen eta bertan gaua pasa genuen. Hau Siberiako kapitula da. Oraindik Lenin eta komunismoa gorai-patzen dituzten monumentuak dituzte. Bertako antzerkia Europako handiena da, Bolshoia baino handiagoa, pena ezin izan genuela ikusi".

Eta Errusiako zatiako gauzak azaltzen jarraitzen du, "hurrengo egunean, Irkutske- ra trena hartu genuen, lehen Siberiako Parisa zena. Leku elegantea da, etxeak zurezkoak, oso politak, eta leihoak guztiak margotuak eta koloreztatuak. Baina egoera txarrean daude, ez dituzte zaintzen, galtzen ari dira. Bertako eliza ortodoxoak ere oso politak dira".

Eta hau atxikitzen du, "hemendik mikrobusa hartu genuen, Baikál lakuko Oljon irlara. Izugarria da lakua, Errusiako politenariako eta ur gezako lakurik handiena. Jende gutxi bizi da irlan. Hondartza txikiak daude, jende asko kanpin librea egitera doa, suak egiten dituzte, Irkutskeko jende asko doa oporretara edo asteburu pasa". Gainera, bitxikeri bat ere aipatu digu, "irlan finka batean egon ginen, Nikita. Bertan atzeritarrak biltzen ginen, motxileroak eta lasarteoriak batzuekin aurkitu ginen".

Mongolia ikaragarria

Ostean Mongoliara egin zuten eta mugan "zortzi ordu itxaron behar izan genituen, polizia pasa zen pasaporteak eta miaketak egiteko. Eguzkitan egon ginen, itzalaren bila. Dendak zeuden bertan ura eta janaria erosteko behintzat.

"Transmongolia treneko ibilbidea ordu askotakoa da eta ez da edonork egiteko modukoa"



Eta han ere Zaragozako bikoite batekin topatu ginen".

"Mongolia ikaragarria izan zen. Mongolia oso handia da eta eremu txikian egon ginen. Biztanle gutxi dago 3 milioi edo, gehienak Ulan-Batorren bizi dira eta besteak nomadak dira. Haranetan bizi dira, abereekin, jakak, gameluak, zaldiak, ardi eta ahuntzak. Abereen esneetatik egiten dituzten produktuak eskertzen dira", aipatzen digu. Eta

jarraian bidaiaaren harira bueltatzen da "Ulan-Batorren furgoneta hartu genuen, txoferra eta sukaldariarekin, honek gainera gida lanak egiten zituen. Zazpi egun egon ginen alde batetik bestera".

Gainera nomadekin harreman handia izan zutela azaldu digu, "gu nomaden geretan egiten genuen lo. Gerak hango dendak dira. Nomaden kanpamentuak bi edo hiru gerez osatua zegoen,

batean sukalde zegoen, beste janaria prestatzen zuten eta besteak saloi antzekoa".

"Gainera, kanpamentu batera iritsi eta lehenengo gauza, bere salara eramane eta jak edo behor esnea ematen zigute. Oso garrantzia zen guk ezin genuen edan, ez gaude ohituak. Konturatzen zirela uste dut. Gaztak ere gustu berdina zuen. Oso adeitsuak ziren", dio jarraian.

Eta honetaz gainera zera azaltzen digu, "Karakorumen egon ginen, Mongoliako kapitula izan zena. Monasterio budista batzuk ere ikusi genituen, dauden gutxietakoa izan ere leninistek denak bota edo hil zituzten. Batean Buda handia zegoen, tenpluaren altuera osoa hartzen zuena".

Nahiz eta herri ikaragarria izan, "pasaia monotonoa da, gerak, abereak eta haranak, haran handiak ikusten dituzu Mongolian", dio Iluk.

Baina tranpatxoren bat ere egin zuten. "Mongoliatik Txinara hegazkina hartu genuen. Hainbeste tren dagoeneko tren nazkatua ginen. Trenean ia 6000 kilometro ziren Ulan-Batorrera", azaltzen du eta zera atxikitzen du, "Hala ere tren ibilbidea oso dibertigarria izan zen, alde baterik bestera ibiltzen ginen denak batera egon nahi genuenean. Bidaia hartzen genuenean ez zegoen bederatzirako lekua bagoi batean, beraz denak sakabana-tuak ginen. Gainera ez duzu goserik pasatzen, andenetan jendeak gauzak saltzen zituen eta bestela jatekoa genuen".

"Hala ere, lasaitasunez hartu behar duzu bidea, jendearekin harremana egin irakurri, hitz egin, ordu asko dira eta ez da edonork egiteko modukoa", ohartarazten du.

Txinako bitxikeriak

Jarraian Txinako bidaia- buruz hitz egiten digu, "kontraste handia nabari genuen Txinara iristean. Hainbeste jende eta soinu, asko kostata baina ohitu nintzen azkenean". Gainera, puntu honetan senarra bidaira batu zela aipatu digu.

Honetaz gain Iluk zera atxikitzen du, "Pekinera joko olinpikoen bukaera iritsi ginen. Espainia Lituania jokatzen ari zen saskibaloian, giro ezin hobea zegoen. Jokoen eraikuntzak ikusi genituen,

baita maratoiko proba ere".

Turismoari dagokionez, bitxikeri bat baino gehiago aipatu zizikigun, "guk dena libre egin genuen, beraz tike- ta hartzeko txinatarren ilaran jarri behar ginen. Autobusak ere txineraz zeuden, beraz gida txineraz zen. Autobus pila zegoen eta jaisterakoan autobusaren matrikula eta zenbakia hartzen genituen, argazkiak ere egiten genituen badaezpada".

Pekinetik Xi'anerako bidaia trenez egin zuten, "terrakotako soldaduak eta indusketak ikustera joan gien. Izugarria da, oso handia eta soldaduez gain, zaldiak etab daude. Xi'aneko herria ere oso polita iruditzen zitzaidan, auzo musulmana dago, meskita dauka. Kanpaiaren Dorrea ere oso polita zen, estilo txinarra duen eraikuntza handia da".

Eta bidaiaaren bukaera Shanghai izan zen. "Shanghai gora begiratzeko da. Eraikuntza handia ditu, etxe orratz pila. Pekinekin alderatuta oso desberdina da", dio Iluk. Eta zera atxikitzen du, "Shanghaian ohitura eta modernitatea elkarbizi dira. Auzo zaharra dago eta bertan txinatarrek bizi dira. Egun batean handik pasa nintzen eta kalean bizi direla konturatu nintzen, lehen bezala".

Gainera herri eta inguruak ongi ezagutzeko aukera izan zuen Shanghaien egun gehiago geratu baitzen, bertan semea lanean du eta. Zera kontatu digu egun horietaz, "bakarrik geratu nintzenean etxean geratu edo ateratzeko duda izan nuen. Azkenean hirira joaten nintzen, metroa hartu eta erdialdera iristeko bi ordu egiten nituen. Unai hiriaren kanpoaldean bizi da. Asko gustatu zitzaidan metroan ibiltzea bertako jendearekin bainengoen. Arraro begiratzen ninduten". Honetaz gain, "Ilargiaren festa zen eta lau egun joan ginen hegoaldera. Gauza asko egin genituen, hala nola, Guilin Yongzhou ibaia behera, txirringa hartu arroz sorok ikustera joan ginen, Nanjingera ere joan nintzen bakarrik, Hangzhou ere oso polita zen, maila altuko herria da, lorategi ederrak ditu", esan digu eta bukatzeko "esperientzia ona izan da, bidai osoa". •

Nerea EIZAGIRRE



Aurten ere txipa erabiliko da

Iaz bezala, hamahirugarren edizio honetan ere txipa erabiliko da korrikalarien denborak neurtzeko. Urteen poderioz, lasterketaren bolumena ikaragarri handitu da eta antolatzaileek herrikoi izaerari eutsi badiote ere, ezinbestekoa izan da aurrerapen teknologikoetara egokitzea. Beraz korrika egin behar duzuenok gogoratu Michelingo kiroldegitik pasa behar zaretela txipa jasotzea lasterketa hasi aurretik. Txipa jasotzeko dortsala erakutsi behar da.

www.txintxarri.info

helbidean
lasterketako
sailkapena eta
argazkiak
igandean bertan

www.ostadarkf.org

helbidean ere
kroseko emaitzak
izango dizutuze



InmoGes
Inmobiliaria

Kale Nagusia 12-3 • Tel.: 943 376662 • LASARTE-ORIA



I. Urruzola aroztegia

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.

Oria etorbidea 4, behea
(Errekatxo jatetxearen ondoan)
Tel.: 943 371200 / 610 413131
LASARTE-ORIA

Kroseko
korrikalarietako
bat eginez!



URPA

AUTOBUSAK

Krosarekin bat eginez!



- Luxuzko autokarrak.
- 19 eta 31 plazako mikrobusak.
- 56 plazako autobusak.
- Autobus literadunak.

Ubilluts auzoa, 55. poligonoa 9-4 • 20140 ANDOAIN
Tel.: 943 305050 • Faxa: 943 305060
e-maila: auto-urpa@euskalnet.net

kima

masaje-lekua

Krosarekin
bat
eginez!

Goyo Martin
Xabier Carbayeda

Kale Nagusia 44 • Tel.: 943 366197 • LASARTE-ORIA

Euskararen Maratoiari agur, ongi etorri krosari!

Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia igandean 10:30etan Okendon hasiko da

Herriar askok gozatu dute Euskararen Maratoiarekin eta Ostadarreko arduradunek igandeko krosarekin gozatu dezazuen nahi dute. Horretarako azken orduko prestaketekin ari dira, dena ongi atera dadin. Jakinarazi digute, eguraldi ona eskatu dutela igande goizetarako: "Ostara eta tenperatura gora egingo duela iragarri dute".

Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia berrikuntza gutxi ditu hamahirugarren edizioan, "aurreko urteetan egindako lanaren jarraipena" dela azpimarratu dute antolatzaileek.

Lasterketak 10.600 metroko luzera du. Irteera eta helmuga puntuak Okendo plazan kokatu dituzte. Helduen lasterketa 10:30ean hasiko da -elbarrituak zertxobait lehenago aterako dira- eta hasi aurretik Erketz Euskal Dantza Taldeko dantzariak agurra dantzatu die korrikalari guztiei. "Modu horretan parte hartzaile guztiak omendu nahi ditugu, ez soilik irabazleak", eman dute aditza.

Korrikalariak mimatzeke borondatea

Azkeneko urteetan 1.200 korri-

kalariren muga gainditu dute -errekorra 2006 urtekoa da, 1.363 parte-hartzaileekin-. Antolatzaileek, ordea, "errekorei erreparatu gabe korrikalariak mimitu nahi dituztela" argitu dute. "Errekorrak gainditzeko joatea beti da polita, nola baitaiteke errekonozimendua delako, baina ez dugu ahaztu nahi krosak duen izaera herrikoia. Eta benetan arduratzen gaituen da etortzen diren korrikalariak gustura geratzea".

Zentzu horretan, Lasarte-Oriako korrikalariak gonbite berezia lizatu dute. "Etortzen diren guztiak ongi-etorriak izango dira, baina ez dugu ukatuko, ilusio handia egiten digula herriarrek krosarekin parte hartzen ikustea". Era berean, aldez aurretik eskerrak eman nahi izan dizkiete krosa antolatzeko lagunduko duten guztiei. Orotara 160 bat lagun izango dira. Egiten duten lana funtsezkoa da lasterketa antolatzeko".

Bigarren urtez txiparekin
Baten bat oraindik krosarekin atera edo ez atera, zer egin



Txikiak ere ederki gozatzen dute krosa, lehia bizian.



Irudian izakio irteeraren momentua, David Martín buru dela. Berak irabazi zuen izakio edizioa.

jakin gabe egongo da. Jakin ezazue bihar goizeko 11:00etatik 13:00ak bitartean Ostadarreko egoitzan, Geltoxi 25 zenbakian, izena eman daitekeela eta igandean bertan Michelingo frontoian 9:00etatik aurrera. Izan-ematea krosaren egunerako uzten dutenek 14 euro ordaindu beharko dituzte. Era berean, korrikalariak lasterketa amaitzean izuliko zaizkien 5 euroko fidantza ordaindu beharko dute.

Bigarren urtez jarraian txipak erabiliko dituzte korrikalariak denborak neurtzeko. "Txipak garestiak dira eta itzuli gabe uzten dugun txip bakoitzeko isuna ordaindu behar izaten dugu. Fidantza gastu hori saihesteko jarri dugu", argitu dute antolatzaileek.

Txiparen harira, antolatzaileek gogorazti dute txipak lasterketa egunean banatuko direla, 9:00etatik 10:15etara Michelingo frontoian eta behar-beharrezkoa izango dela dortsala erakustea. "Denbora tarte txikian jende asko gertu-

ratuko da txipa jasotzera eta azpiegitura nahikoa jarriko dugun arren, korrikalariak azken unerara arte ez dezatela itxaron" eskatu dute.

Urtero moduan, korrikalari guztiek kamiseta bana jasoko dute opari, kirol aseguru izango dute, lasterketa amaitzean Lasarte-Oriako kirol instalazioak erabiltzeko aukera izango dute eta hainbat opariren zozketetan parte hartuko dute (Reala eta Bruesa ikusteko sarrerak, kirol materiala, afariak...).

Kros Txikia

Kros Txikia VII. edizioa da aurtengoa eta urteik urtera gero eta haur gehiago parte hartzen du. Aurtengoa, adin desberdinetako 650 haur inguru korrika aterako dira herriko erdiguneko kaleetan barrena. Kros Txikian parte hartuko duten haurrak Landaberi ikastolara, REM zena, goizeko 11:30etan joan behar dute. Bertan, Itakuneko begiraleek eta ikastetxeetako irakasleek haur guztiak taldeka antolatuko dituzte. Bost urteko aurrek,

berriaz, 11:30etan Manuel Lekuona Kultur Etxeko aterpera joan beharko dute.

Txikiak Krosarekin lehen txanda, bost urtekoen taldea, 12:00etan hasiko da. Amarauneko Esti, Lur eta Markok parte hartzaile guztiei dominak banatuko dizkiete. Azkeneko momentuan parte hartu nahi duten haurak ere izena emateko aukera izango dute 11:00etatik aurrera Sagardotegi plazan, beti eta dortsalak geratzen baldin badira (dagoeneko 6-7 eta 10-11 adin artekoak bukatu dira).

Kontutan izateko oharrak

Gogoratu larunbateko ordu txikiak, 03:00etan, erlojuko orratzak 02:00etan jarri behar direla. Bestetik, antolatzaileek herriko biztanleei gogoratu nahi dute, igande goizean krosa irauten duen bitartean, erdiguneko kaleak motzuta egongo direla. Beraz, autoa mugitu behar baduzue goizeko lehen orduan egin dezazuen gomendatzen dute, 13:00ak arte itxita egongo baita errepidea.

ALMENA

Iturgintza eta berokuntza



Krosarekin bat eginez!

Goikale 3 • Tel.: 943 361786 • LASARTE-ORIA

Fernández



Krosarekin eta korrikalariarekin bat eginez!

Kale Nagusia 2 • Tel.: 943 361607 • LASARTE-ORIA

MAIDER



Hipodromo etorbidea 7 • Tel.: 943 362700 • LASARTE-ORIA

Krosarekin bat eginez!

- Asteburuko menu bereziak
- Egunko menuak
- Gaueko menuak
- Kartako zerbitzua
- Pintxoak
- Bokatak
- Razioak
- Plater konbinatuak

MANOLI estankoa

Krosarekin bat eginez!

Geltoki 15 Tel.: 943 362492 LASARTE-ORIA



BARDAJI

FINKEN ADMINISTRAZIOA

Arantxa Bardaji Saez de Villaverde

Finka Administrazzaileak

Kale Nagusia 2, behe • Tel.: 943 36 79 38 • Faxa: 943 36 79 36
E-maila: administracion@bardaji.eu


Krosa animatuz!

- Salmenta eta alokairuen gestioa.
- Jabetza higiezin gestioa
- Etxebizitza, lokalen... balorazioa

BARDAJI

INMOBILIARIA

Jon Etxaniz Bardaji
Bide, kanal eta portuetako ingeniaria
Higiezin jabetzak Agentea (API)



Lasarte-Oria Bai!

VIII. Kross Txiki Herrikoa



Taldea	Urtea	Ordua	Distantzia
A	2003	12h00'	100 m
B	02/01	12h10'	150 m
C	00/99	12h20'	1 bira l
D	98/97	12h30'	2 bira
E	96/95	12h40'	3 bira
F	94/93	12h50'	3 bira



“Jaurilaritza enpresen alde jartzea larria da”

Uztailaren bukaeran Lasarte-Oriako Kelan Elektronika, S.A. enpresan enplegu-erregulazio espedienteak aurkeztu zuen kontratuen etenaldiekin. Langileei produkzioa jaisten ari zela esan zieten eta ondorioz neurriak hartu behar zituztela. Espedienteak langileek astean bost egunetan lan egin beharrean hiru egunetan lan egitea proposatzen zuen bederatzi hilabeteetan zehar. Enpresaren ekoizpenaren jaitziera gertatu zela eta astean bi egunetan Kelaneko langileak langabezia egongo zirela.

Enplegu-erregulazio espediente hau aurrera eraman ahal izateko eskakizun bat egiten da administrazioan, kasu honetan Eusko Jaurilaritza, eta bertan onartzen bada enpresak proposatutakoa aurrera eraman daiteke.

Kasu honetan ez da inolako akordiorik ez zen egon, enpresak espedientearekin aurrera jarraitu nahi izan zuen baina langileen ustetan ez dago horrelako neurririk hartu beharrik enpresa guztiz saneaturik dagoelako. Guk Jokin Txapartegi Kelaneko LABeko delegatuarekin eta Jon Martin Lasarteko LABeko kidearekin hitz egin dugu gaiaren berri eman diezaguten.



Ezkerretik hasita, Jokin Txapartegi eta Jon Martin, LABeko delegatuak.

Zuen ustetan ez dago zertan horrelako neurri gogorrik hartu beharrik.

Jokin: Ez, LABeko ekonomilari batek enpresaren kontuak begiratu zituen lehenengo, eta enpresa gaizki ez zebilela esan zigun. Horren arabera langileek eta sindikatuak ezezkoa eman genion espedienteari egin zen asanblean.

Langileek ezetza eman eta gero enpresak aurrera jarraitu zuen espedientearekin.

Jon: Langileen eta sindikatuen ezezkoarekin espedienteak administrazioara doa eta han hartu behar dute erabaki bat. Enpresak bederatzi hilabeteetarako eskatzen zuen espediente baina administrazioari behintzat gehiegizkoa iruditu zitzaion eta sei hilabeteetarako onartu zuen.

Jokin: Bi bilera izan genituen Jaurilaritzako inspektorearekin eta berak bi parteak entzun eta gero bere iritzia eman zigun. Guk enpresa ekonomikoki gaizki ez zegoela argudiatzen genuen baina gaur egun espediente bat onartzeko horren beharrik ez dela azaldu zigun, enpresak ez du zertan galerarik izan behar, lege baten ondorioz aldatu zen eta orain produkzioa jeisteagatik bakarrik onar daiteke espedienteak. Inspektorearen aholkua akordio batera iristeko izan zen, espedienteak ia ziur onartua izango zelako. Hori jakinda enpresaren soladuta jaitziera hori konplementatzea proposatu genuen, baina ez zuten onartu. Gero, horren erdiarekin ere konforme geunden baina enpresak

ezet, espedienteak onartuko zela bazekitelako.

Orain hiru egunetan lan eta bitan langabezia zaudete?

Jon: Bai eta gure ustez egoera guztiz salagarria da. Jaurilaritzaren jarrera onartezina da, enpresa saneatu batek irabaziak mantendu ahal izateko horrelako espediente bat sartu eta Jaurilaritzak onartu. Diru gutxiago irabazten dute eta ugazabek beren irabaziak mantentzen dituzte, hau guztia Jaurilaritzaren baimenarekin eta guztion diruarekin zeren astean bi egunetan langabezia kobratzen dute langileek.

Jaurilaritzaren jarrera salatzen duzue LABetik?

Jon: Bai. Badirudi Kelanek egin duena beste enpresa batzuek ere egin dutela, krisi hotsak daudela eta egoera aprobetxatu eta enpresa asko egitura saneatzen ari dira, baina diru publikoaren kontura. Kasu honetan egia da produkzioa jaitzi egin dela, baina 2007 urtekoa ez zen normala izan inoiz baino gehiago produzitu zutelako enpresan.

Jokin: Gauzak zerekin alderatzen diren ere kontutan eduki behar da. 2007.a historikoki gehien produzitu dugun urtea izan da, horregatik, horrekin alderatuta emaitzek produkzioak behera egin duela esaten dute.

Hiru egun horietan lan gehiago egiten duzue ?

Jokin: Lehengo urtean ariko bagina bezala ari gara, lan asko egiten dugu hiru egun

horietan.

Jon: Azkenean egoera langileek asumitzen dute.

Zer egingo duzue orain?

Jokin: Langileak bildu ginen eta zerbait egitea erabaki genuen, behintzat horrekin ados ez gaudela ikusi dadin eta enpresaren aurrean elkartuko gara urriaren 31ean hasitako hamabost eguneko kontzentrazioak egitera.

Hemendik sei hilabetera zer gertatuko dela uste duzue?

Jokin: Orain komertzial bat jarri dute Frantzian eta Portugalen eta lana bilatzen ahalegintzen dela esan digute. Suposatzen da epe hau igarota produkzioa igotzen hasiko dela. Beraien ustez egoera hobetuko da.

Jon: Gure beldurra enpresek funtzionamendu hau normalizat hartzea da. Ekoizpena behera dotorkien epeetan horrelako neurriak hartu ahal izatea. Kasu honetan ez dute galerarik izan, irabaziak jaitzi dira besterik ez. Horrelakoak neurri bereziak dira egoera berezietarako. Andoainen beste bi enpresek dute espediente bat mahai gainean, beraien kontuak gaizki egon gabe neurri desberdinetako espedienteak sartzen ari dira. Guk hori salatu nahi dugu. Orain komunikabideak dabilta krisia dela eta ez dela enpresa asko nahiz eta ekonomikoki egoera larrian ez egon hori aprobetxatzen dute irabaziak mantentzeko. Hau ez da kasu isolatu bat eta hori da larriena. Orain kasu hau dau-

kagu mahai gainean baina enpresako mozkinak jaisten direnean hori gertatzen da batean baino gehiagotan horregatik Eusko Jaurilaritzaren eta ugazaben jarrera salatu nahi dugu. Aurreko krisialdian espedienteak sartzen ziren enpresak lur jota zeudenean, ordainketa-eten zegoenean edo guztiz hondoratuta zeudenean. Gaur hori aldatu da eta irabaziak dituzten enpresek espedienteak aurkeztzen dituzte. Saneatuta dagoen enpresa da Kelan.

Errazagoa da orain enpresentzat horrelako gauzak egitea?

Jon: Lan departamendua Eusko Alakartasunaren esku dago eta alderdi sozial demokratizat jotzen du bere burua baina benetazko itxura alderdi neoliberal batena da. Enpresaren funtzionamendu normal batean espedienteak aurkezteak onartezina da.

Jokin: Espedientetik kanpo dagoen langile batek aparteko orduak sartzen ditu orain. Eusko Jaurilaritzari hori esan baina tipoak antolaketa lanean dabilela esaten du. Guk gure makinatan aritzen dela badakigu, produkzio lanetan.

Horrek esan nahi du momentu honetan langileak faltan daudela?

Jon: Bai. Produkzio lana egiten du horrek eta hori ere salatzen modukoa da. Hori lana dagoenaren froga da. Jokin: Lehengo urtean lan asko egin genuen, inoiz ez bezala, eta orain ere erritmo hori nahi dute. Pasa den urte

honetan astoak bezala ibili gara eta orain ez digute esaten lasai ibiltzeko egindako lan horren truke. Lan gutxiago dagoenean gutxiago ordaintzen digute baina lan gehiago dagoenean berdina.

Krisiarekin enpresak beldur dira eta diru aurreztu nahi izatea?

Jon: Ez, ez da badaezpada aurreztu nahi dutela, enpresa bakoitzak bere egoera dauka. Iruditzen zait enpresa askok egoera hau aprobetxatu nahi dutela, krisiaren gaia puripurian dagoela eta horregatik Eusko Jaurilaritzan espedienteak errazago onartuko dituztelako. Hortik doala uste dut, egoera aprobetxatu antolakuntza aldatzeko. Batzuk soberan daude eta orain hori aurrera eramateko aukera daukate, baina hori lejitimoa den betse kontu bat da, bakoitzak bere politika dauka eta Jaurilaritzak ere berea dauka.

Langabezia geldituz gero honek eragin negatiboa edukiko du?

Egunak gastatzen ari gara. Gainera lanik egiten ez dugun egunek gehiago kontatzen dute astelehena eta ostirala direlako eta egun bakoitzak egun oso bat eta laurden bezala balio du, asteburua tartean dagoelako. Hau da, hilabete batean 10 egunetan ez badugu lanik egiten 10 x 1,25 egin behar da parotik kentzen dizkiguten egunak kalkulatzeko. •

Helena FERRERAS

Kirolletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 25

10:30ean, Ostadar-Sanse B (Infantil txikiak) Micheline.
12:00etan, Ostadar-Hernani (Kadeteen Ohorezko maila) Micheline.
15:30ean, Ostadar-Urnieta (I. Jubenila) Micheline.
17:15ean, Lasarte-Oria Taldea-Usurbil (II. Erregionala) Micheline.

11:30ean, Lengokoak-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila) Cesar Benito, Donostian.
15:30ean, Amaro-Lasarte-Oria Taldea (I. Jubenila) Usabal, Tolosan.

Igandea 26

11:30ean, Ostadar-Hernani (Alebinak) Altamira, Ordizian.
16:00etan, Hernani-Ostadar (Emakumezkoen Liga) Zubipe, Hernanin.
18:00etan, Oriko-Ostadar (Emakumezkoen KDT F-11) Mendibelztz, Orion.
18:15ean, Juventudes de America-Ostadar (II. Erregionala) Felix Garin, Donostian.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 25

17:45ean, ISU leihoak-Zaldibi (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

09:10ean, Katanga-Mayi
10:00etan, Epel-Izkiña
10:50ean, Buenetxea-Obelix
11:40ean, Siglo XX-Lurra XXI
12:30ean, Danena-Illargi
13:20ean, ISU-Oria Txiki
14:10ean, Viña del Mar-IOB H.K.
15:00etan, Oria krist-Morrison
15:50ean, Tragoxka-Okela

Igandea 26

10:15ean, Aldaz H.K.-Kukuiaga Etxebarri (Euskal Liga) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

09:10ean, Izarra-Ainhua
10:00etan, Biyona-Jordi

FUTBOL 7

Larunbata 25

18:00etan, Niasa-Corpa-Urbietta Zentro Medikoa (III. Maila) Zubietan.

FUTBOL 8

Igandea 26

11:00etan, Lasarte BHI-Intxaurren K.E. (eskolarteko infantilak) Micheline.

PILOTA

Ostirala 24

20:00etan, Antiguako 2-Intza (Eskuz binaka III. Seniorra) Ibaeta, Donostian.

Larunbata 25

12:00etan, Intza-Oiarpe (Eskuz binaka I. Jubenila) Micheline.
12:00etan, Intza-Olalde (Eskuz binaka II. Seniorra) Micheline.

SASKIBALOIA

Larunbata 25

18:00etan, Leihoak Zast-Ainhua (Gizonezko seniorrak) Antoniano kiroldegian, Zarautz.

Ostadar nagusi bigarren erregionaleko derbian

■ Lasarte-Oriari 4-1 irabazi zion aurreko larunbatean

Futbola, II. erregionala

OSTADAR 4
LASARTE-ORIA TALDEA 1

Bigarren erregional mailako Ostadar futbol taldeak lehenengo mailara igotzeko hautagai nagusia dela erakutsi zuen aurreko larunbatean Michelingo zelaian Lasarte-Oria, herriko beste taldearen aurka jokaturako derbian. Ostadarrekoak 4-1 nagusitu ziren eta ez zuten partiduan zehar punturik arriskuan ikusi. Baina gola lehen zatia amaitzen iritsi ziren.

Hasieratik ikusi zen kalitatea Ostadarreko jokalariek jartzen zutela eta Lasarte-Oriakoen asmoa aldiz, 90. minutura golik jaso gabe iristen zela. Ez galtzera ateratu ziren, baina lehen zatiko azken bost minututan Erik Utiel Ostadarreko aurrelariak bi sartu zituen eta Ostadarrek emaitza handitzeko beste bi aukera ere egin zituen.

Bigarren zatian. Ostadarrek jarraitu zuen baloiarekin nagusi, eta 10. minuturako hirugarren gola sartu zuen Josu Apaolazak.

Iñaki Zurutuza Ostadarreko entrenatzaileak, norgehiagokako eskura zutenaz,



aldaketak egin zituen, normalean jokatzeko dutenei aukera emanaz, eta une horretan soilik iritsi ziren Lasarte-Oria taldearen aurrerak, baina denak estrategia jokaldietan. Horietako batean heldu zen Jesus-en gola, baina 3-1ekoarekin ere ez zuten Ostadarrekoek partidua arriskuan ikusi. Handik gutxira lasaitasunaren gola sartu zuen Igor Astiazaran Ostaldar taldeko jokalaririk beterranoak.

Ostadarrek lehen sei partiduetatik seiak irabazi ditu lehen fasean eta aurretik esperatu dute gero igoerako fasean kalerik ez egitea. Iaz 32 partidutik bi bakarrik galdu zituz-

ten baina ez zuten igotzerik izan azken partiduetako berdinketengatik.

Aurrelari berriak

Dena den, Iñaki Zurutuza entrenadorearen ustez iaz baino aukera gehiago izango dituzten iaz aurrelariak gutxi sartu bazuten aurretik golak sartzen dituzten bi jokalaririk berri dituztelako, "klase handiko Erik Utiel Errealean, Antiguokoen eta EHUKo taldeetan aritua eta Lander Lobo, berriro Ostadarren jokatzeko animatua dena. Beraiekin batera Igor Astiazaran beterranoa eta Gurutz Iturbe kapitaina ari dira aurrean.

Jubeniletan Lasarte-Oriak 3-1 irabazi zion Ostadar-i

■ 25 minututan erabaki zen norgehiagokak

Futbola, I. jubenila

LASARTE-ORIA 3
OSTADAR 1

25 minututan erabaki zen Lasarte-Oriako jubenil mailako futbol taldeen arteko norgehiagokak. Ostadar taldeko jokalariek markagailuan aurretik jartzeko aukera dezente izan zituzten arren, Lasarte-Oria taldea izan zen korer batean gola egin zuena.

Ostadar taldearen jokoan nabaritu zen atzetik zihozteala. Lasarte-Oria taldea berriz minutuak pasa ahala kemendutik zuten eta bigarren gola lortu zuen areaz kanpotik falta baten jaurtiketan. Zalantzak jokaldia izan zen baina epaileak adierazi egin zuten eta hesia behar baino urrutiago jartzeko agindu ere bai. Beraz



atsedenaldira, 2-0 emaitzarekin joan ziren.

Bigarren zatian, Ostadar saiatu zen ondo jokatzeko, baina Lasarte-Oria taldea ongi kokatua zegoen eta kontraeraso batean hirugarren gola sartu zuen. Azkenean Ostada-

rren aldeko penaltia adierazi zuen epaileak eta emaitza itxuratu zuen honek.

Laburbilduz, Lasarte-Oria taldeak arerioak baino gogo gehiago jarri zuen partiduan eta herriko derbiko hiru puntuak eskuratu zituen.

XXVI. Areto- futbol txapelketa martxan da

Ostadar Kirol Fundazioak urtero antolatzen duen Areto- futbol txapelketa herrikoari aurreko asteburuan eman zitzaion hasiera. Aurtengo Lasarte-Oriako XXVI. txapelketa izango da.

Areto futbol txapelketako lehenengo jardunaldia, larunbat eta igandean, urriaren 18 eta 19an jokatu zen eta lehen partidua horietako ezaugarri nagusia futbol jokalariek sartutako gol kopurua izan zen. Guztira 62 gol sartu ziren atletismoko moduloan jokatu ziren 11 norgehiagokatan, beraz batzuek beste 5 goletik gora partiduko. Buenetxea

izan zen alde handiena lortu zuen taldea 6-1 nagusitu baitzen Oria Txiki-ren aurka.

Lehen jardunaldiko emaitzak honako hauek izan ziren:

Morrison-Epel	0-2
Okela-Katanga	4-4
Ilargi-Tragoxka	1-3
Izkiña-Jordi	4-1
Obelix-Izarra	1-4
Oria Txiki-Buenetxea	1-6
Ainhua-Siglo 20 Shooter	6-2
Mayi-Viña del Mar	3-2
IOB H.K.-ISU	3-4
Biyona-Danena	5-1
Lurra XXI-Oria kristal	4-1

Aste honetako jardunaldiko partiduko kirol agendan ikus dezakezue.

Egunero

Erakusketa

EUSKARAREN MARATOIAK. Aurreko edizioetako argazkiak eta aurtengo edizioeko materiala ikusgai Jalgi kafe-antzikian, egun osoan.

Larunbata, 25

Musika

Bad Sound System taldeak dub, reggae, dancehall eta ska musikaz beteko du Jalgi kafe antzikia. Ondoren DJ saioa eskainiko da 3:00ak arte. Jalgi kafe-antzikian, 22:30ean.

Igandea, 26

Zinea

CARLITOS ETA BERE LAGUNEN ISTORIOAK haurrentzako filma ikusgai. Sarrera 3 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ



Astelehena, 27

Hitzaldia

ELIKADURAKO NAHASMENDUEN DEFINIZIOA: JATORRIA ETA ZERGATIEI buruz hitz egingo dute Yolanda Iglesias eta Maddi Arrazolak Osasunaren XVI. Jardunaldien barruan. Kulturetxean, 19:00etan.

Oharrak

Eguberrietako loteria

Oztanbide auzo-elkarteak eguberrietako loteria salgai jarri du: 43.607 zk. 3 eurotako partizipazioak (loteria: 2,5 euro eta emaria 0,5 euro) Txema tabernan (Zumaburuan) eta Coviran supermerkatuan (Oztaran emparantzian) erosi ahal zango dira. Zalantzak argitzeko, 627818225 (Joseba) edo 661068301 (Pili).

Katxalin Elkarteko loteria

Bularreko eta Ginekologiako Min-biziagatik Eragindako Gipuzkoako Emakumeen Elkarteko loteria dago salgai KIUBen. Zk. 07.731 da, txartelak 3 euro balio ditu, 0,50 zentimoko dohaina Katxalin elkarterako izango da. Erosteko KIUBetik pasa, Ganbo kalean.

Euskal Inauterietako dantza taldea

Talde hau entsaioekin hasiko da urriaren 14tik aurrera, astearte eta ostegunetan arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara. Dantza gustokoa duenak edo dantza berriak ikasi nahi dituenak azal-

ZARZUELA

«La corte de Faraón»

Agrupación Lírica Sasibill

Faraoiaren zartzuela kulturetxean

LA CORTE DEL FARAÓN izeneko zartzuela eskainiko du Sasibill talde lirikoak. Jose Antonio Irastorza irundarra izango da musika zuzendaria. Zartzuela honek antzerkitik gehiago du musikatik baino. Ekintza Egipton zentratzen da eta nahiko endredu sortuko dira. Sarrera 12 euro.

LARUNBATA 25, 20:00ETAN
KULTURETXEAN
GAZTELANIAZ

Asteartea, 28

Hitzaldia

PERTSONALITATEAREN NAHASMENDUEI buruz hitz egingo du Xabier Arrazola psikologoak Osasunaren XVI. Jardunaldien barruan. Manuel Lekuona Kulturetxean, 19:00etan.

Asteazkena, 29

Ipuin-kontalaria

KORUKO ZURUTUZA ipuin-kontalariaren saio ederra eskainiko du etxeko txikiarentzat. Manuel Lekuona Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan.

du dadila Landaberri BHI (REM) eraikiner.

1962an jaioetako enafaria

1962. urtean jaioetako lasarte-arentzat afari bat antolatu dugu Goiegin azaroaren 14rako. Interesatuak deitu 19:00etatik aurrera telefono hauetara: Tel.: 672 138855 (Marian)/ 685 775968 (Idoia) /659 950363 (Rexu). Izena emateko azken eguna urriaren 31. Animatu!

Krosseko inskripzioa EHNArekin

Bai Euskal Herriaren taldeak deialdia luzatzen du Loko kross herrikoian inskripzioak EHNArekin egiteko, inskripzio orrietan aukera hori egongo da.

Hidrogenoa eta erregai pilen inguruko jardunaldi teknikoak

Urriaren 30ean Usubilgo Lanbide Eskolan Hidrogeno eta Erregai Pilen inguruko jardunaldi tekniko bat ospatuko da. Bertan hidrogenoa zein pilen garapena, erabilpena eta proiektuen azterketa egingo da. Sarre-

ra doan da baina parte hartzeko izena ematea ezinbestekoa da. Informazioa 943 354 600.

Eguberrietako loteria

Lasartearra elkartek, jakinarazi nahi du, gabonetako loteria salgai duela. Erosteko asmoa duenak elkartean egin dezake astelehene-tik ostiralera 18:00aurrerara abenduaren 7a arte.

Dantzaren Lagunak taldea

Erketzek entsugu irekiak aurkeztu nahi ditu Dantzaren Lagunak taldearen bidez. 15 urtetik gorakoenzat bideratuak eta erromeriko dantzak landuko dira. Plazan gogoarekin begira ez geratzeko, orain duzu aukera. Urriaren 28tik aurrera, asteartero 20:00etan bilduko dira Sasoteta-Zumaburu ikastetxeko Zumaburuko eraikinean. Animatu!

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe

Eskutitzak

Euskararen VII. Maratoia

Pasa den urriak 18 eta 19an, Lasarte-Orian Euskararen Maratoia ospatu zen.

Bertan, Lasarte-Oriako Musika Eskolako ikasleek parte hartu zuten.

Larunbatean, goizeko zortzietan txistularien txanda izan zen. Dianan parte hartu zuten. Igandean berriz, trikitixa taldea eta musika hizkuntzako taldeen txanda izan zen. Guztiak goizean Musika Eskolan bildu eta Okendo plazaraino kalejira bikinean herriko kaleak alaituaz iritsi ziren.

Trikitixa taldea jardun zen lehendabizi. Hauek jo zituzten kanten artean, denok aski ezagunak ditugun kantak toprtu genituen. Adibidez, Ai Simon!, Beti eskamak kentzen, Furra-furra, Euskara, Pirritx eta Porrotxen "Maite zaitut"... Bide batez, ikuslegoa beraiekin batera kantatzera gonbidatu zituzten gaztetxo hauek. Beraien adina, zortzi urtetatik hamalau urtetara bitartekoa zen.

Trikitixa taldearen ondoren, Musika Eskolako musika hizkuntzako ikasleek Juana Bixenta Olaberren bertsoak kantatu zituzten. Bertan, zortzi urtetik gorako ikasle animatuak hartu zuten parte. Oso ondo egin zuten gainera. Denok primeran pasa genuen. Eguraldiak ere lagundu gintuen.

Udal Musika Eskola

Non gogoan han zangoa

Udal-euskaltegiko ikasle talde bat gara. Joan den asteburuan Lasarte-Orian ospatu zen zazpigarren maratoia dela eta, gure iritzia azaldu nahi dugu.

Hasteko esan behar dugu, antolatzaileek jarri zuten egundoko aterpea euritik babesteko ez zela beharrezkoa izan, bai eguraldia bai giroa ezin hobeak izan baitziren. Hortik pasa ginenok ikusi genuen Okendo Plaza jendez gainezka egon zela ekintza horrek iraun zuen bitartean. Hori dela eta, argi eta garbi dago, jai batean giro ona izateko nahikoa dela jendearen gogoia, besterik ez.

Bestalde, deigarria izan zen euskaldunen partaidetza eta are deigarriagoa pixka bat edo tutik ulertzen ez dutenak ere giroan nola murgiltzen ziren ikustea. Okendo enparantzaren adin eta auzo guztietako jendea elkartu zen: haurrak, gazteak, baita gurasoak, aitona-amonak, osaba-

izebak eta normalean etorritzen ez direnak ere.

Tira-bira ideologikoen gainetik aurtengo maratoiak argi utzi du euskara, azken finean, kultura dela: musika, antzerki, bertso, kirola... Era berean, konturatu ginen hip-hop eta rap saioak ikustekoan, kultura egiteko forma berriak euskaraz ere baliagarri izan daitezkeela.

Hori dena ikusita proposamen bat egin nahi dugu: euskararen egun bat maizago antolatzea, adibidez Sanpedrotan.

Bukatzeko, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu parte-hartzaile eta antolatzaile guztiei.

Udal Euskaltegiko ikasleak

Aurrera maratoia

Udal Euskaltegiko 2. eta 3. mailako ikasleak gara. Aurtengo maratoia pasa ondoren, gutun ireki honen bidez jakinarazi nahi dizuegu gure iritzia.

Antolatzaileei (Ttakun elkarteari, Udaleren Euskara Zerbitzuari, zortzikoteari eta gainerakoiei) lan ona eta gogorra egiteagatik eskerrak ematea gustatuko litzaiguke.

Aurten, Okendo plaza oso dotore zegoen jantzia, aterpe eta guzti, eguraldi euriutsu eta zakarra izanez gero, dena prest egoteko jendea busti ez zedin. Horregatik, 40 ordutan zehar ikusle eta partaide pilo bat bildu zen, euskaldunak izan ala ez.

Okendo plaza Teresategiko eta korrikarako ibilbidearen abiapuntua izan zen. Teresategiko ibilbidea garbi zegoen eta ondo prestatuta. Txangoa egin genuenok ondo sentitu ginen eta ederki pasatu genuen.

Bestalde, korrikarako prestatu zen ibilbidean berotasunaren falta nabaritzen zen, maratoia saltatik aparte zegoela. Korrikari parte hartzen zuten herritarrek jendearen babesik gabe egin zuten ibilbidea.

Zortzikoteak gogor ekin zion maratoia; aurkezpenean saldu ziguten bezain alaiak, txistek kontatzen trebeak eta marxosoak izan ziren.

Azken finean, edozein koloretako pertsonak hartu dute parte. Maratoia bizitzeko ilusioarekin, aurrera segitzeko, ez bakarrik 40 ordutan, baita urtean zehar ere euskerak segi dezan gure artean, ilusioarekin lanean proiektu horiek luzeak direlako, ez bi egunetako kontu bat bakarrik.

Gure iritziz, helburua lortuzat eman daiteke eta merezi du antolatzea.

Udal Euskaltegiko ikasleak

Eraginkorki gidatzearen abantailak

■ Gutxiago kutsatu eta erregaia aurreratzea ditu helburu. ■ Onena bidai laburrak oinez edo bizikletaz eta luzeagoak garraio publikoan egitea da. ■ Autoa hartuz gero, martxa luzeak erabili, azeleragailua gutxi zapaldu eta ibilgailuaren inertzia baliatzeko adi gidatu behar da.

Autoz ibiltzea garesti ordaintzen dugu, batetik erregaia garesti saltzen digutelako eta bestetik ingurugiroan eragindako ondorioak pairatuko ditugulako, lurraren beroztzea, klima aldaketa eta airearen kutsadura oro har. CO₂ edo ke emisioak gutxitzea, ekologisten aldarrikapena izatetik agintari eta adituen helburu izatera pasa da. Hain zuzen ere autoa erabiltzerakoan gasolio gutxiago erre eta gutxiago kutsatzeko aholku batzuk eman zituzten Lasarte-Oriako Mugikortasun Iraunkorren astearen.

Autoa egoki gidatu eta aholku batzuei kasu eginez gero energia eta dirua aurreratu dezakegu eta bide batez ingurua gutxiago kutsatu. Hori da Energia Aurrezteko erakunde publikoetatik zabaltzen den mezua. Automobilaren gastuak gutxitu ahal izateko, ematen duten lehen aholkuak, bidaia eta joan-etorrietan garraibiderik eraginkorra aukeratzeko da. Lehen urratsa hori da bidai laburrak oinez edota bizikletaz egin, hiri-inguruetan garraio publikoa erabili eta baita herriz kanpoko bidai ertain-luzeetan ere: garraio publikoa autoa baino 6 aldiz eraginkorragoa da. Beraz, oinez, bizikletaz edo garraio publikoan ibiltzea hobesten da eta autoa hartu beharra izanez gero ahalik eta garesti gidaizeko eskatu.

Autoa erabiltzen denean modu eraginkorrean gidatzeko zenbait teknika proposatzen dituzte: martxa luzeak erabili, abiadura uniformearen eta biraketa gutxirekin eta zentzuz gidatu, hau da, beti adi izatea, erabaki onak hartu, gerta daitekeena aurre-ikusi eta egoerari aurre hartuz, arriskurik gabe, beti ere autoak daraman abiadura baliatzeko. Aholku konkretuak asko dira, egoera bakoitzean erabili beharreko teknikak ondorengo lerroetan azalduko ditugunak.

Teknika

Automobila ahalik eta modu ekologikoenean gidatzeko kontuan hartu behar dira auto-eskolan erakusten ez diren zenbait jokabide. Lehen martxa soilik abian jartzeko erabili eta segituan, lehenbailehen, aldatu bigarren martxara. Ondoren ere, beti ahalik eta martxarik luzeenak erabili, 2.etik 4.era edo 3.enetik 5.era zuzenean aldatu aukerarik baldin badago. Abiadura moteltzean ez da abiadura-palanka ito-puntuaren jarri behar, hobe da, azeleragailutik hanka altxa eta balazta-pedala

erabiliz abiadura murriztuz joatea, ahalik eta beranduen aldatu edo murriztuz martxa. Adituek diotenez, azeleragailua sakatzen ez bada, martxa sartuta dagoela eta abiadura 20 km/o-tik gorakoa bada, automobilak ez du erregairik kontsumitzen, hau da, martxan azeleratu gabe kontsumoa zero da. Aldiz, askok besterik uste badu ere, erralantian kontsumoa handiagoa da.

Gutxi azeleratu

Azeleragailua asko erabiltzea ez da komeni, azeleratzean kontsumoa gora doa eta diesel autoetan 2.000 biraketatik ez pasatzeko gomendatzen dute, 1.500 eta 2.000 artean martxa aldatuz. Gasolina motorra dutenetan 2.000 eta 2.500 artean martxa aldatzea komeni da eta hortik ez pasatzea.

Bestalde, adituek garrantzi handia ematen diote gerta litekeen egoera aurreikusteko eta aurrea hartzeko moduan gidatzeari, hau da, komeni da batez ere bidegurutze eta biribilguneetan adi izatea eta abiadura gehiegi moteldu gabe beste bidean jartzea, ahal baldin bada behintzat. Ahalik eta gutxiena frenatzea komeni da, azken unera arte ez frenatu, bestela gero berriro energia beharko dugu abiadura handitzeko eta autoa mugitzeko.

Bestalde, semaforo edo auto-ilararen gela 60 segundotik gorako geldialdia izango dugula aurre-ikusten badugu motorra itzaltzeko gomendatzen dute.

Pneumatikoen presioa

Gutxiago erretzeko beste aholku batzuk ere ematen dituzte, pneumatikoen presioa tarteka begiratzeko, erabiltzen ez diren gauzak autotik kentzeko (pisua, auto-parilla), aire girotua neurritz erabiltzeko eta abiadura handian ez gidatzeko. Esaterako autoaren gaineko parilla kargatuta eramanez gero, ehuneko 35 gehiago kontsumitzen du autoak, aire



Abiadura moteltzean martxa ahalik eta beranduen aldatu edo murriztea komeni da gutxiago kontsumitzeko.

Lehen martxa soilik abian jartzeko erabili eta segituan aldatu bigarrenera. Ahal den martxarik luzeena erabili.

girotua erabiltzean ehuneko 25 gehiago eta leihoak zabalik gidatzean erregai kontsumoa ehuneko 5a igotzen da.

Segurtasuna

Pisurik alperrik ez erabiltzeko (100 kilorekin ehuneko 5 igotzen da kontsumoa) eta pneumatikoen presioa zaintzeko (0,3 bareko presio gutxiago kontsumoa %3 gehiago) aholkatzen dute adituek. Gainera aholku hauei kasu eginez gero, dirua aurrezteaz gain, segurtasun handiagoz gidatuko dugu.

Gidatze eraginkorari esker batetik erregai gutxiago kontsumituko da, beraz dirua aurreztuko dugu eta CO₂, ke, gutxiago botako dugu airera. Beste abantaila batzuk ere baditu esaterako gidatzerakoan erosotasuna eta segurtasuna. Ez da zalantzarik abiadura handiagoko ibiliz gero, tentsioa ere handiagoa dela, istripua eta kalteak ere bai. Poliki zoazela askoz ere lasaia eta umore hobean joaten da autoetan, kontu kontari, eta abiadura azkartu ahala oro har isiltasuna nagusitzen da.

Segurtasuna beti egongo da beste guztiaren aurretik, hau da, garrantzitsuenari istripuak baztertzeko.

Autoa erosteko orduan ere, norberaren premien arabera autoa erosteko aholkatzen dute, eta noski, kontsumo etiketari zein CO₂ emisioei erreparatzeko. Izan ere, badaude ezaugarri edo prestazio berberak dituzten autoen artean, batzuk merkeagoak eta ekologikoagoak.

Hausnarketa

Gainera kontutan izan behar da batetik autoak aldatu direla, egun aukera ematen dute biraketa ia gabe ibiltzeko, eta martxa aldatzeko ez da azeleratu eta motorra indartsu jarri beharrik. Erraz eta ondo hartzen dute martxa motzagoa. Bestetik, jendartea eta agintariak jabetu dira autoen keak ere eragina duela klima aldaketan eta lurraren beroketan. Beraz, garraio pribatu eta autoen erabileraz hausnarketa eta mentalizazio zabalak komenigarriak dira.

Aire egokituak ere erregaia kontsumitzen du eta neurritz erabiltzeko gomendatzen da.

Dena den bero dagoenean, leihoak zabaltzea baino egokiagoztat jotzen da airea piztea, behin 40 km/o abiaduratik gora. Abiada horretatik gora leihoak zabalik erabiltzean asko kontsumitzen da leihoek oztopatzen dutenarengatik.

Pisua zaindu

Bestalde, pisu gehiagorekin ere gehiago kontsumitzen denez, gomendagarri da gasolioz autoa goraino ez betetzea eta tanga erdi beteta erabiltzea, baita bidaia luzeetan ere. Sarriago gelditu beharra ez da kaltegarri, erregaia hartzeko geldidunak atsedean txikia direlako. Bidaia luzeetan sarri geratzeko ez da kaltegarri, hankei eta buruari atsedean ematen zaielako.

Autoa konpartitzeko modua ere eskaintzen du Lasarte-Oriako Udalak. Autoa partekatzeari bultzada eman nahi dio eta Udaleko web orrialdearen bitartez laguntza eskaintzen du. Lanera, ikastera,... norabait autoz joan eta lekua dutenek www.lasarte-oria.compartir.org web orrialdea erabili dezakete joan-etorri berbera egiten duten beste herritar batzuekin harremanetan jarri eta elkarrekin joateko. Ekimen honen helburu nagusia ere, autoa zentzuz erabili eta kutsadurari aurre egitea da. •

Jon ALTUNA